

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 595/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Iñaki Guillerna Saenz jauna Lurralde Orekaren zuzendari kargua uzteari**

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 381/2015 Erabakiaren bidez, Iñaki Guillerna Saenz jauna Lurralde Orekaren zuzendari izendatu zen.

Iñaki Guillerna Saenz jauna Foru Administrazioko beste kargu batean arituko dela kontuan izanik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzazko gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailtako diputatuaren proposamenak hala eskatuta.

Horregatik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe,

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Iñaki Guillerna Saenz jauna Lurralde Orekaren zuzendari kargutik kentzea Foru Administrazioko beste kargu batean aritzeko, egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek 2019ko irailaren 25etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 24a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**